



Prentsa-oharra

Proiektuak 30 milioi eurotik gorako inbertsioa eskatuko du datozen hiru urteetan

Energiaren Euskal Erakundeak, Iberdrolak eta Bizkaiko Foru Aldundiak adostu dute sare elektrikoaren digitalizazioaren alde egiten jarraitzea, Bidelek 4.0 proiektuaren bitartez

- **Bidelek 4.0 Euskadin garatuko da, eta gizartea deskarbonizatzeko bidean aurrera egitea ahalbidetuko du, gizartearen palanka nagusia ekonomiaren elektrifikazioa dela aintzat hartuta**
- **25 enpresak baino gehiagok parte hartuko dute proiektu berritzaile horretan, teknologiaren erreferentzia izango da mundu osoan, eta Euskadiko ekipo-ondasunen eta energia-azpiegituren industria sustatuko du**
- **Kontagailu adimendunen eta sare automatizatuen balioa erakutsi zuen Bidelek Sareak proiektuaren arrakasta ikusirik, Bidelek 4.0 proiektuak onura gehiago ekarriko ditu sare elektrikoaren kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat**

Bilbo, 2018ko otsailaren 9a – **Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturretako sailburu eta Energiaren Euskal Erakundeko presidente Arantza Tapiak, Iberdrola Taldeko Sareen Negozioko zuzendari Armando Martinezek eta Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Bizkaiko foru-diputatu Imanol Pradalesek lankidetzat-protokolo bat sinatu dute gaur, Euskadin banaketa elektrikoaren sarearen eraldaketa digitala bultzatzen jarraitzeko konpromisoa berresteko, Bidelek Sareak proiektuarekin hasitako bideari jarraipena emanez. Bidelek 4.0 izeneko proiektuak 30,5 milioi euroko baterako inbertsioa eskatuko du, gutxi gorabehera, datozen hiru urteetan.**

Gaur Iberdrola Dorrean sinatutako protokoloari jarraikiz, alderdi bakoitzari honako funtzio hauek esleitu zaizkio:

- Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal Erakundearen bitartez, euskal enpresek teknologia berrien garapenean eta zabalkundean parte har dezatela bultzatuko du. Aurreztearen, energia-efizientziaren eta kontsumitzaileentzako zerbitzuaren kalitatea hobetzearen alorretako konpromisoak betetzen direla ikuskatuko du.
- Iberdrola Distribución Eléctricak gidatuko du sare elektrikoa dimentsio teknologikoan digitalki eraldatzeko proiektu hori, Euskadin dauzkan aktibo nagusiak haren esku jarritz, eta inbertsio horien bitartez lortuko du puntako enpresa elektriko gisa lortu duen tokia sendotzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiak bere sustapen eta garapen teknologikoko programak jarriko ditu proiektu horren zerbitzuan, eta erakusteko proiektuak ere babestuko ditu.

Proiektua aurkezteko ekitaldian Energiaren Euskal Erakundeko presidente eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturretako sailburu Arantza Tapiak nabarmendu duenez, parte hartzen duten agente



publiko-pribatuek akordioak lortzeko gaitasun handia erakutsi dute Euskadiko sare elektrikoak munduan aitzindaria den digitalizazio-maila batera eramateko, euskal enpresek garatutako ekarpen teknologikoa eginez, enpresa horiek nazioarteko erreferentzia gisa kokatu direlarik sare elektriko adimendunen alorrean, Bidelek Sareak proiektuak izandako arrakastaren ondoren.

Bestetik, Armando Martínez Iberdrola Taldeko Sare Negozioaren zuzendariak adierazi du “Bidelek proiektuarekin, lehen fasean, lortutako arrakastaren ondoren, sektoreko enpresa ugari mundu mailan puntako konpainia izateko aukera eman diena, bigarren faseari ekingo diogu, sareen digitalizazioan sakontzen jarraitzeko eta, aldi berean, gure bezeroentzako eta, oro har, gizartearentzako etekin eta onura handiak lortzen segitzeko. Nabarmendu nahi dut, orobat, Bidelek ekinbidea Iberdrolaren konpromisoaren adierazlea dela sare adimendunak arian-arian zabaltzeari eta ezartzeari begira, azken urte hauetan, Estatuan, 1.400 milioi eurotik gora inbertitzera iritsi baikara”.

Horrez gain, Imanol Pradales Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuak azpimarratu du oso garrantzitsua dela aliantzak sortzen eta Bizkaia-erantzat oso estrategikoa den energia-sektorea bultzatzen jarraitzea, gure esparru fiskalak horretarako eskaintzen dituen abantailak aprobetxatuz: “Enpresa traktore handiak eta ETEak biltzen ditu sektore horrek, nazioartekotze-maila handiarekin eta I+G+B alorrean inbertsio handiak eginez. Oso sektore lehiakorra da, azken batean”.

Eusko Jaurlaritzak etorkizuneko energia-sareen industria- eta teknologia-garapena bultzatzeko hartu duen konpromisoaren barruan kokatzen da Bidelek 4.0 proiektua, Eusko Legebiltzarrak onartutako Industrializazio Planarekin eta energia iturriak dibertsifikatzea eta petrolioaren deribatuen erabilera murriztu nahi duen 3E2030 Energia Estrategiarekin bat etorritik.

Sare adimendunen zabalkunde berri horrek 30 milioi euroko inbertsioa eskatuko du, eta Iberdrolaren eta EEEren arteko baterako sozietate berri batek hartuko du bere gain. Inbertsio-ahalegin horrek toki-industria garatzeko palanka gisa jardungo du, berrikuntzaren eta etorkizuneko ekipoen diseinuaren bitartez, eta horri esker euskal industriak munduko erreferentzia teknologikoa izaten jarraitzeko aukera izango du.

Bidelek 4.0 proiektuan garatzen diren soluzioek aukera handiak izango dituzte, Iberdrolak erabiliko dituelako sare adimendunago gehiago ezartzeko, karbonizaziorik gabeko ekonomiaranzko energia-trantsizioan aurrera egiteko bidean.

Asmo handiko helburuak

Funtsean, ekimen horrekin honako helburu estrategiko hauek lortu nahi dira:

- Sare elektrikoaren digitalizazioa handitu ahala, autokontsumoa eta banatutako bestelako energia-baliabideak eraginkortasunez integratzea, efizientziari eta jasangarritasunari dagokionez gero eta informatuago eta sentsibilizatuago dauden bezeroei zerbitzu berriak eskainiz.
- Banaketa-sareak energia garbi eta jasangarrietaranzko trantsizioa lortzeko gai izango den bitarteko bihurtzeko bidea erakustea.
- Bezeroentzat zerbitzuaren kalitatea eta elektrizitatearen balio erantsia areagotzen duten soluzio teknologiko berrien funtzionalitatea frogatzea.
- Egungo elektrizitate-banatzailen bilakaera praktikan jartzea, etorkizunean Banaketa Sistemen operadore gisa jarduteko aukera izan dezaten.
- Euskal industriak energia-ekipoko ondasunetan duen lidergo teknologikoari eustea.

Gero eta fidagarriagoa, malguagoa eta digitalizatuagoa den sare elektriko bat, haren garapena eta hazkundera ahalbidetzen duen erregulazio-esparru batean oinarritua, guztiontzako etorkizun hobea baten bermea da.



Bidelek proiektuan izandako elkarlanari eta azken urteetan sare adimendunetan egindako inbertsio handiei esker, Iberdrolaren zerbitzu-kalitatea nabarmen hobetu da Euskadin, eta gorabeheren aurrean zerbitzua berreskuratzeko behar den denbora erdira murriztu da. Gainera, bezeroekin egiten diren eragiketa gehienak automatikoki eta berehala egiten dira.



Nota de prensa

El proyecto supondrá una inversión superior a los 30M€ en los próximos tres años

El Ente Vasco de la Energía, Iberdrola y la Diputación Foral de Bizkaia acuerdan seguir apostando por la digitalización de la red eléctrica con Bidelek 4.0.

- **Bidelek 4.0 se desarrollará en Euskadi y contribuirá a avanzar hacia una mayor descarbonización de la sociedad, cuya principal palanca es la electrificación de la economía**
- **Más de 25 empresas participarán en este proyecto innovador, que será referente tecnológico a nivel mundial y promocionará a la industria de bienes de equipo y de infraestructuras energéticas de Euskadi**
- **Tras el éxito de Bidelek Sareak, que demostró el valor de los contadores inteligentes y las redes automatizadas, Bidelek 4.0 proporcionará mayores beneficios para los consumidores y usuarios de la red eléctrica**

Bilbao, 9 de febrero de 2018 – **La consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco y presidenta del Ente Vasco de la Energía (EVE), Arantza Tapia, el director del Negocio de Redes del Grupo Iberdrola, Armando Martínez, y el Diputado Foral de Bizkaia de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, han firmado hoy un Protocolo de colaboración por el que se comprometen a seguir impulsando la transformación digital de la red de distribución eléctrica en Euskadi iniciada con Bidelek Sareak. El proyecto, denominado Bidelek 4.0, supondrá una inversión conjunta de aproximadamente 30,5 millones de euros en los próximos tres años.**

En el protocolo rubricado hoy en la Torre Iberdrola se señalan las siguientes funciones a cada una de las partes:

- El Gobierno Vasco, a través del Ente Vasco de la Energía, impulsará la participación de empresas vascas en el desarrollo de nuevas tecnologías y su participación en el despliegue de las mismas. Supervisará el cumplimiento de los compromisos en materia de ahorro, eficiencia energética y mejora de la calidad del servicio a los consumidores.
- Iberdrola Distribución Eléctrica liderará este proyecto de transformación digital de la red eléctrica en su dimensión tecnológica, pondrá sus principales activos en el País Vasco a disposición del mismo y conseguirá a través de estas inversiones afianzar su condición de empresa eléctrica puntera.
- La Diputación Foral de Bizkaia pondrá al servicio de este proyecto sus programas de promoción y desarrollo tecnológico, y su apoyo a proyectos de demostración.

Durante el acto de presentación del proyecto la presidenta del ente Vasco de la Energía, Arantza Tapia, consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, ha destacado la capacidad de acuerdo de los agentes público-privados participantes para llevar las redes eléctricas de Euskadi a un grado de digitalización pionero en el mundo, con una aportación tecnológica desarrollada por las



propias empresas vascas que se han posicionado como referente internacional en redes eléctricas inteligentes, tras el éxito de Bidelek Sareak.

Por su parte, el director del Negocio de Redes del Grupo Iberdrola, Armando Martínez, ha señalado que “tras el éxito alcanzado con el Proyecto Bidelek en su primera fase, que ha servido para situar a numerosas empresas del sector en compañías punteras a escala mundial, iniciamos esta segunda fase para seguir profundizando en la digitalización de las redes y continuar obteniendo importantes beneficios para nuestros clientes y para la sociedad en general. Quiero resaltar que Bidelek es una iniciativa que se enmarca en el compromiso de Iberdrola con la progresiva implantación de las redes inteligentes, que le ha llevado a invertir en el Estado más de 1.400 millones de euros en los últimos años”.

Asimismo, Imanol Pradales, diputado de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, ha subrayado la importancia de seguir tejiendo alianzas y colaborando con un sector estratégico para Bizkaia como es el energético aprovechando para ello las ventajas que ofrece nuestro marco fiscal: “Un sector que agrupa a grandes empresas tractoras y PYMES, con un alto grado de internacionalización y una fuerte inversión en I+D+i. En definitiva, un sector altamente competitivo”.

El proyecto Bidelek 4.0 se enmarca en el compromiso del Gobierno Vasco de impulsar el desarrollo industrial y tecnológico de las redes energéticas del futuro, de acuerdo al Plan de Industrialización aprobado por el Parlamento Vasco y de la Estrategia Energética 3E2030, que pretende diversificar las fuentes de energía y reducir el uso de derivados del petróleo.

La inversión de más de 30 millones de euros que requerirá este nuevo despliegue de redes inteligentes será ejecutada por una nueva sociedad conjunta entre Iberdrola y el EVE. Este esfuerzo inversor servirá de palanca de desarrollo de la industria local a través de la innovación y el diseño de equipos y soluciones de futuro y permitirá a la industria vasca mantenerse como un referente tecnológico mundial.

Las soluciones que se desarrollen en Bidelek 4.0 gozarán de una gran oportunidad, puesto que serán utilizadas por Iberdrola en su apuesta por implantar más redes y más inteligentes como camino para avanzar en la transición energética hacia una economía descarbonizada.

Objetivos ambiciosos

Los objetivos estratégicos fundamentales que se buscan con esta iniciativa son:

- Conseguir que la mayor digitalización de las redes eléctricas permita la integración eficiente del autoconsumo y otros recursos energéticos distribuidos, prestando nuevos servicios a unos clientes cada vez mejor informados y más sensibilizados con la eficiencia y la sostenibilidad.
- Mostrar el camino que convertirá las redes de distribución en el vehículo capaz de lograr la transición hacia energías limpias y sostenibles.
- Demostrar la funcionalidad de las nuevas soluciones tecnológicas que incrementan la calidad del servicio y el valor añadido de la electricidad para los clientes.
- Poner en práctica la evolución de los actuales distribuidores de electricidad hacia su futuro papel como Operadores de Sistemas de Distribución.
- Mantener la posición de liderazgo tecnológico de la industria vasca de bienes de equipo energético.

Una red eléctrica cada vez más fiable, flexible y digitalizada, soportada en un marco regulatorio que permita su desarrollo y crecimiento, es garantía de un futuro mejor para todos.

Fruto de la colaboración en Bidelek y de las elevadas inversiones en redes inteligentes de los últimos años, la calidad de servicio de Iberdrola ha mejorado notablemente, habiéndose reducido a la mitad el



tiempo necesario para recuperar el servicio ante incidencias. Además, la mayor parte de las operaciones con clientes se realizan de forma automática e inmediata.